



## Azken hileetan zehar egindako obren zerrenda

**SAN MIGEL IKASTETXE PUBLIKOA.** Hezkuntza Departamentuak 76.153 euroko dirulaguntza eman du, BEZa barne, San Migel ikastetxe publikoan udan egin diren obretarako. Zehazki, leihoak aldatu dira, eta lan horrek 106.436 euroko kostua izan du, BEZa barne. Agoizko Udala behin baino gehiagotan aurkeztu da urtez urte egiten den deialdi honetara, zeiak toki-erakundearen titulartasun publikoko zentroen jarduerak diruz laguntzea duen helburu, premiazko esku-hartzea behar duten eraikinak edo instalazioak hobetzeko edo birmoldatzeko obrak egiteko. Agoizko ikastetxea, 1977an eraikia, laguntza lortzeko hautagai sendoetako bat zen.

Gainera, eraberritze hori aprobetxatuz, eta ikasleak DBHko institutu berrira lekualdatu ondoren espazioak egokitzeari begira, Agoizko Udalak beste obra garrantzitsu batzuk egin ditu ikastetxean. Hainbat horma bota dira gela handiagoak eta argitsuagoak lortzeko, eta ikastetxeko barnealdeko eremu asko margotu dira.

**HAUR ESKOLA.** Uztailean eta abuztuan, halaber, zola malgua ordeztuko lanak egin dira Agoizko Haur Eskolako barrualdean, eta korridoreko markesina ere aldatu da. Gauzatzeko aurrekontua 73.329,33 eurokoa izan da, BEZa barne, eta Agoizko Udalarari 28.998,33 euroko dirulaguntza eman dio Nafarroako

Gobernuko Hezkuntza Departamentuak. Haur Hezkuntzako lehen zikloko 0-3 urteko ikastetxeetan irisgarritasuna, eraginkortasun energetikoa edo espazioen egokitzapena hobetzeko jarduerak egiteko laguntza-deialdira aurkeztu da udala, eta horren bidez jaso da aipatutako zenbatekoa.

Zola aldatuta, instalazioari itxura berritua eta garbia eman zaio, eta gela guztietan argia irabazi da. Markesina aldatzeak, berriz, muturrekoak tenperaturak edukitzea ekidinen du, eta urte osoan zehar egonkorrago mantenduko dira espazioan. Horrela, espazioari etekin handiagoa atera ahal izanen zaio, bai neguan, bai udan.



**FUTBOL ZELAIA.** 47.167,03 euroko aurrekontua eskainita (BEZa barne), **MONTAJE, MANTENIMIENTO Y AUTOMATISMOS, S.L.** enpresa izan da Agoizko futbol-zelaiaren argiztapena berritzeko esleipenduna. Nafarroako Gobernu Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren eta Agoizko Udalaren arteko hitzarmenak ahalbidetu du jarduera hori. Zehazki, Agoizko Udalarik 117.500 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea erabaki da, lurralde-garapen iraunkorreko proiektuetarako, besteak beste, San Migel Berriko argiak berritzeko eta Gizartetxea eraikineko bigarren solairuko barrualdea eraberritzeko. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek dira gastuaren oinarria, Agoitz, Artzibar, Longida eta Orozko udalei litoizengatik proiektu jasagarrietarako emandako konpentsazioaren kontura.

**GIZARTETXEA.** 20.000 euroko dirulaguntza Tokiko Agenda 21en inbertsio-proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak lehen aipatutako lurralde-garapeneko ekimenetarako emandakoarekin batera. Horri esker, Gizartetxearen eraikineko bigarren solairuan obrak egin ahal izan dira, eta, horrela, 2019an sortu zen proiektu hau amaitu da. Eraberritze horren guztizko kostua 84.787,96 eurokoa da, BEZa barne. Gainera, 6.000 euro gehiago inbertituko dira altzariak erosteko eta sortutako espazio berriak egokitzeko.

Eraikinaren behin betiko banaketa honela egituratuko da:

- Beheko solairua: Jubiloteka Zerbitzua.
- Lehen solairua: Etorkinei gaztelania ikasteko, tailerrak, hitzal-

diak, ikastaroak... egiteko, helburu sozialekin.

- Bigarren solairua: Justizia sozialaren eremuan jarduerak egiten dituzten tokiko gizarte-kolektiboak kokatuko diren espazioa. SAREAn, Erretiratuen, Pentsiodunen eta Alargunen Plataforman eta Haurren eta Nerabeen Tratu Onen aldeko Sarean egonen dira solairu horretan. Hiru areto, biltegi bat eta bainugela bat ditu.

**SAN MIGEL KALEKO HORMA.** Duela gutxi, San Migel kaleko horma hobetzeko eta egokitzeko lanak amaitu dira. Horma horrek elizarako sarbidea eta zubirako jaitziera bereizten ditu. Jarduketa oso beharrezkoa zen, horma nahiko hondatuta zegoelako, eta udal langileek egin dute. Egitarazko esku-hartze bat izan da, kontserbaziorako eta mantentze-lanetarako funtsezkoa zena.



## Agoizko biztanleria migratzaileari buruzko azterlana



Agoizko Udaleko Gizarte Ongizateko arloak hiribilduko biztanleria migratzailearen gizarte-egoerari buruzko diagnostikoa eginen du. Kolektiboa nabarmenki hazi da herrian azken urte hauetan, eta gaur egun Agoizko biztanleriaren % 17 inguru hartzen du; horregatik udalak jakin nahi du zeintzuk diren horien beharrak eta eskariak, horiei erantzun ahal izateko. Diagnostiko hori Polymathía Gizarte Aholkularitzak gidatuko du. Azterketa azaroan hasi da eta sei

hilabeteko iraunaldia izanen du. Hainbat jarduera eginen dira, honako hauek, besteak beste:

- Estatistika soziodemografikoak: Agoitzen bizi den biztanleria migratzailea ezaugarritzeko, aldagai soziodemografiko nagusiak eta denboran izan duen bilakaera kontuan hartuta.
- Baliabideen mapa.
- Biztanleria migratzaileak hiribilduko zerbitzuen eta baliabideen erabilera aztertze funtsezko

eragileei egindako elkarrizketak: erabileraren maiztasuna, profilak, eskaera motak, erabilerak eta aprobetxamenduak, bertako biztanleriarekiko faktore bereizgarriak, baliabidean duen eraginari buruzko balorazioa...

- Eztabaida-taldeak, Agoitzen bizi diren migratzaileek hautemandako gizarte-errealitatea eza-gutzeko, ikuspegi metodologiko parte-hartzailearen bidez, taldearekin elkarreragina sustatzeko.
- Azken txostena idaztea eta aurkeztea.

Migrazioaren fenomenoak Agoizko errealitate sozioekonomikoan kontuan hartu beharreko beste faktore bat bihurtu da. Gizartean duen eraginagatik eta bere izaera aldakorragatik esparru askorentzako fenomeno eraldatzaile bihurtu da. Horren ondorioz, immigrazioaren errealitateari buruzko azterketa garrantzi handikoa da. Horregatik, Agoizko Udalak ikerketa eta azterketaren aldeko apustua egin du, gure udalerriko etorkinen errealitate soziala eza-gutzeko tresna gisa.

## Igerilekuateko tabernaren esleipena

Agoizko Udalak duela gutxi iragarri zuen Kanpondoa kirol guneko instalazioetan dagoen udal igerilekuko taberna alokatu eta ustiatzeko enkante publikoaren deialdia. Kontratua bost urterako sinatuko da, baina urteko aldika luzatzeko aukera egonen da, gehenez ere 10 urtera arte, eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua urtean 4.000 eurokoa izanen da, BEZa barne. Urriaren 31ra arte zegoen eskaintzak aurkezteko epea, hasierako kopuru hori gaindi zezaketanak.



## Teileriara itzuli da oroimen errepublikanoa

Joan den larunbatean, urriaren 22an, Eloko Teileriako hobian fusilatutako 106 pertsonen omenezko jardunaldia egin zen herriko Teileriako Memoriaren parkean. Zerrenda makabro horren izenen artean, Agoizko eta Longida haraneko hainbat herritar daude. Eolo Teileria, Nafarroako hobi komun handiena, Foru Komunitateko Memoria Historikoaren Tokietako bat da. Duela gutxi beste hiru gehiago gaineratu dira zerrendara, eta orain guztira hogeita dira. Honakoak dira toki berriak: Larragako Memoriaren Parkeko eskultura, Iruñeko fusilatuen omenezko plaka eta Iruñeko Atxilotze Zentroen memoria.

Teileriako Ahaztuak memoria elkarteak antolatu du ekitaldia, eta bertan izan ziren Unai Hualde, Nafarroako Parlamentuko presidentea, Ana Ollo, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria eta Josemi Gastón, Nafarroako Memoriaren Institutuko zuzendaria. Angel Martin Unzue alkateak ordezkatu zuen Agoizko Udala.

Omenaldiaren hasieran manifestu

bat irakurri zuen Manu Biurrunek, herriko memoria elkarteko ordezkariak. Bertan egindako krimenak eta lekua ezagutarazteko lanean ari da elkarteak, faxismo frankistaren biktima horien eta beste batzuen egia, justizia eta erreparazioa betetzen laguntzeko. Biurrunek eskerrak eman zizkien ondorengo familiei, bertan zuden eta erakundeetako ordezkari. Eraildakoen senide bakoitzari besarkada handi bat bidaltzeaz gain, Josefina Lamberto Yoldi (Laraga) eta Pilar Gota Perezi (Reta, Izagaondoa) omenaldi txikia egin zien. Garrantzi handiko bi emakume, memoria historiko kolektiboa berreskuratzeko etengabeko borrokatuak.

Urte honetatik aurrera, Patxi Aldunatek sortutako eskulturamultzoak, 105 gizonen eta maistrabaten (identifikatu gabe) izenekin lurrean iltzatutako lau teila emulatzen dituenak, teila berri bat du, 1936ko abuztuaren 7an Esako zazpi eraildakoak gogorarazten dituenak.

Josemi Gastónek, bestalde, eskerak eman zituen «isiltasuna

hautsi eta parajea oroimenez bustitzen duen» errebindikaziotzko presentziagatik, eta Iruñean laster altxatuko den 1936ko Atxilotze Zentroen Memorialaren parte izanen den lur-bilketan parte hartzera animatu zuen, inoiz ez ahazteko eta Nafarroa osoak jasan zuen errepresio basatiari betiko argia emateko. «Espainia berriarekin bat ez zetozen balioak defendatzeagatik espetxeratuak eta erailak gogoratzeko topagunea izanen da. Erreferentzia bat bere familientzat eta belaunaldi berrientzat», azpimarratu zuen.

Hitzaldi horien ondoren, bertarutakoek banan bana lurra hartu eta propio ekarritako urnan sartzten joan ziren joan ziren, Agoizko Simplex taldeak (Oihane Jaso, Xabier Dendarieta eta Fermintxo Sarriés) hunkigarria jotzen zuen bitartean. Ekitaldian zehar musika gehiago entzun zen ere: Fermin Irigoienek txistua jo zuen, Cesar Asiainek, gitarrak lagundurik, berak eginiko Teileriako Ahaztuak kantu gogaingarria eskaini zuen. Eta guztien ohorean, Aurreskua dantzatu zuten Ane Bustintzek eta Asier Costarenak.



## Zalurrribarko San Salvatore Monastegian egindako II arkeologia esku-hartzea



Urriaren 15ean eta 16an, Aranzadi Zientzia Elkarteak teknikariak zuzendutako bigarren esku-hartze arkeologikoa egin zen, Agoizko Udalak, Cederna Garalurrek eta HIDEA Agoizko Historia Kultur Elkarteak sustatua. Bigarren kanpaina horren helburuak iaz aurkitutako hormen gailurrak sendotzea eta eraikinaren barruan zundaketa berri bat egitea ziren. Gogoan izan behar da lehen fasean, iaz, aztarnategia garbitu eta mugatu zela, eta hainbat lagin eta estratigrafiaren dokumentazioa ireki zirela.

Ekitaldian boluntario askok parte

hartu zuten, eta, horri esker, aurreko hormak finkatzeaz gain, horma zati berriak induskatu eta garbitu ahal izan ziren. Monasterioaren neurriak, Aranzadi Elkarteak arkeologia-zerbitzuaren iritziz, garai hartan mota horretako eraikinetan ohikoak zirenak baino askoz handiagoak dira. Zundaketari dagokionez, lagin-zulo bat egin zen, eta, horri esker, ermita zaharraren lurrera iritsi ahal izan zen. Horri esker, gerora, zoladura aurkitu ahal izan zen.

Une honetatik aurrera lanean ari gara monasterioaren inguruan jardura integrala egiteko baimen

berriak lortzeko.

**OHARRA.** Zalurrribarko San Salvador ermita, antzinako monasterioa, Erdi Aroko zubiaren eta Irati ibaiaren ondoan dago, Agoizko hirigunetik oso hurbil, eta antzinako monasterioarekin identifikatuko liratekeen ageriko egiturak ditu. Mendeetan zehar, hainbat dokumentu erreferentzia egin diote Monasterio horri. Lehen aipamenak XI. mendearen erdialdekoak dira. Lekuak aktibitate handia izan zuen mendeetan zehar, frantziar tropek Independentziako Gerran (1808-1814) atzera egitean suntsitu zuten arte.

## NUKF-ak baliabideak eskatu ditu, energia prezioaren igoera dela eta

Energiaren kostua gora egin duela ikusita, eta horrek Tokiko erakundearen egoera ekonomikoan zuzen eragiten duenez, NUKFren Batzorde Betearazleak erabaki zuen, joan den urriaren 11ko bilkuran, aparteko kreditu bat gaitzea, Toki Inbertsioen Planari atxikitako gerakinaren egungo zuzkiduraren

baliokidea. Batzordeak, gainera, erabaki zuen Batzorde Betearazlearen barruan prozesu bat hastea zuzkidura hori banatzeko irizpideak zehazteko, eta akordioa Lurralde Kohesioeko Departamentuari eta legebiltzar-taldeei helaraztea, kontuan har dezaten ildo horretako ekimenei ekiterakoan.



## Cedernak herritar eta enpresentzako aholkularitza bulegoa ireki du



Argiaren eta gasaren kontratuei buruzko informazioa ematea, kontsumo-patroiei buruzko diagnostiko pertsonalizatuak egitea eta dirua eta energia aurrezteko neurriak proposatzea. Horiek dira Cederna Garalur Elkartearen energia-aholkularitzako bulego berriaren helburuak, partikula-

rei eta Nafarroako Mendialdeko enpresa txikiei bereziki zuzendua dagoena.

Horiez gain, autokontsumo partekatuko instalazioei edo energia-komunitateen ezaugarriak buruzko dibulgazio-hitzaldiak aurreikusi ditu Elkarteak, independentzia energetikoa sustatzeko. Interesatuak 697 655 664 telefonora deitu edo infoenergia@cederna.es helbidera idatz dezakete.

Bulego berria Elkarteak udalei eta kontzejuei eskaintzen dizkien energia-aholkularitzako zerbi-

tzuen osagarria da. Orain, Klimaren aldeko Alkatetzen Itunari (Agoitz) atxikitako toki-erakundeek Cederna Garalurren laguntza izanen dute, itunetan jasotako ekintza-planen jarraipena, lehen-tasunak eta egutegiak egiteko.

Informazio gehiago:

Lorea Jamar. Proiektuen teknika. Tel: 639 900 318. Posta elektronikoa: ljamar@cederna.es

Haizea Meoki. Energia-zerbitzuko teknikaria. Tel: 697 655 664. Posta elektronikoa: infoenergia@cederna.es

## 2023-2027 Toki Garapen Estrategiaren prestaketa

Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldea Nafarroako Mendialdeko 2023-2027 Toki Garapen Parte-hartzailearen Estrategiaren prestaketa bultzatzen ari da. Eki-men honek lurraldeko biztanle eta erakunde garrantzitsuen laguntza izan nahi du, eremu osoaren garapena bultzatuko duten proiektuak eta ekintza-ildoak diseinatzeko. Horretarako, 7 milioi euro baino gehiago izanen ditu, Estrategiaren gauzatzea finantzatzeko eta datozen urteetan Nafarroako Mendialdean aldaketarako palanka errealak aktibatzen.

Lehenik eta behin, mendi osoaren diagnostikoa egin da, eta, azkenean, 6 AMIA azterketetan labor-bildu da. Lurraldean funtsezko diren eragileekin kontrastatu da, 4 lurralde-mahairen bidez. Horretaz gain, beste 6 Mahai Sektorial egin dira, proposamenak jaso ahal iza-



teko. Mahai horietan adituek parte hartu zuten, eta Nafarroako Mendi osoko gaien ezagutza espezifiko izan zuten.

Prozesu osoarekin batera, nahi

duen orok egin ditzake ekarpenak Cederna Garalurren webgunearen bidez. Bertan, 2023-2027 Toki Garapeneko Estrategiaren prestaketan parte hartzeko inprimaki bat dago eskuragarri etengabe.

## Udal administrazio elektronikoaren hobetzea

Nafarroako 120 toki entitatek jaso dituzte Toki Administrazio eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiaren laguntzak, beren udal-letan administrazio elektronikoa ezartzeko eta/edo hobetzeko. Agoizko Udalak 4.644,60 euro jasoko ditu. Zehazki, administrazio elektronikoko software-plataformak ezartzea, integratzea eta hobetzea finantzatzeko da, bai eta arlo horretako udal-langileen prestakuntza ere izanen dira zenbaterako horren helburuak. Deialditik kanpo geratzen dira, besteak beste, ezarpenaren ondorengo mantentze-zerbitzuak eta ekipo informatikoak erosteko gastuak. Deialdiak 290.000 euroko zenbatekoa du, eta udalei eta mankomunitateei zein



talde tradizionalei zuzendu zaie.

Nabarmentzekoa da azken hiru urteetan 600.000 euro inguru bideratu direla toki-administrazioetan administrazio elektronikoko siste-

mak ezartzeko. 2021ean 200.000 euro bideratu ziren deialdi horretara, eta Nafarroako 113 udalak jaso zituzten. Halaber, 2020an, beste 100.000 euro bideratu ziren 69 erakundetara.

## Toki Eder pilotalekua erabiltzeko arautegia



Auzotarren eta Toki Eder pilotalekuko instalazioen talde kudeatzailearen iradokizunei erantzunez, Agoizko Udalak, gune honen administrazioa gisa, honako araudi hau idatzi eta jakinarazi du bertan kantxak erreserbatu eta erabiltzeko buruz:

- Kantxa eskatzeko (24 ordu lehe-

nago egin ahal izanen da) 948 33 61 64 telefono-zenbakira deitu beharko da edo tabernara joan; eta, betiere, 16 urtetik gorako pertsonak egin ahalko dute.

- Instalazioen erreserba egin duena arauak betetzen direnaren arduraduna izanen da.

- Udal-jarduerak lehen-tasunak izanen dute instalazioa erreserba-

tzeko orduan.

- Debekatuta dago kantxa barruan jatea edo edatea.

- Instalazioaren erabiltzaile guztiek aurkitu duten bezala utzi beharko dute. Ateak lotuta eta bere lekuan, eta bildutako sarea.

- Instalazioak doan erabiliko dira, fokuak erabiltzen diren kasuetan izan ezik. Argiak kontratatzeagatik prezioa eguneratu egin da, energiaren kostua handitu egin baita: 15 € kantxa handian eta 7,5 € txikian.

Agoizko Udalak herritarren zerbitzura jartzen ditu instalazioak, bai prestakuntza eta lehiaketa kirola egiteko, bai osasuna mantentzeko, bai entretenimendurako. Baina, era berean, guztiok ditugu eskubide eta betebeharrak udalak eskaintzen dizkigun zerbitzuekin. Zaindu dezagun Agoitz, gure etxea da.



## Kultur balantzea

Urriaren lehen astean, Agoizko istorioak irudietan erakusketa bisitatu ahal izan zen Kultur Etxeko areto handian. Formatu handiko 57 argazkiz osatutako erakusketa, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Agoitzen zehar ibilbide bisuala egiteko. Erlijio-uneak, kirol-uneak, jaiegunak, eszena kostunbristak, gure udalerriaren historia hobeto ezagutzeko paisaiak.



Nafarroako Pailazoen Nazioarteko Jaialdiaren bigarren edizioaren baitan, Lorena Arangoak "Nire-baitaturik" (Enmimismada) obra antzeztu zuen Agoitzen. Keinuzko ikuskizuna, testurik gabea, Patxi Larreak zuzendua. Hitzik gabeko bakarriketa, barre egiteko, hunkitzeko eta liluratzeko. Bizitzaren bidean galdu zen emakume baten istorioa.



Paris 365 eta Arteriak taldeek an-

tolatutako II. Teatrodix Phestibal zikloa Agoitzera iritsi zen "GUK. Nosotras mujeres" antzeztanare-

kin, Nabda Dantza Arabiarraren Elkartearena. Dantza eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna, emakumearen aniztasuna erakusteko, bere izatearen etapetan zehar egindako ibilbidearen bidez.

Euskarazko irakurketa taldeak lehen saioa egin zuen Ane Maddi Txoperenaren "Nire baitan bizi da" liburuari buruz solasteko. Mikel Albisuk koordinatuta, hilean behin egingen da, doan, Euskararen Etxean.

Agoizko Jubilatuz, Pentsiodun eta Alargunen Plataformak La vida empieza hoy pelikularen proiektzioa programatu zuen. Komedia dibertigarri, fresko eta maitagarria. Hirugarren adineko pertsonak izanen dira protagonista, sexuari buruzko ikastaro batean. Sexua bitziza delako eta sentsazioekin zerikusia duelako, eta inoiz ez diogu sentitzeari uzten.

## Txapela Matxin-Otanorentzat

Matxin III.a-Otanok irabazi zuten Nafarroako E•Remonte Beti Euskal Jai enpresak antolatutako Binakako Erremonte Txapelketa. Aurrelari gipuzkoarrak eta atzelari agoizkoak osatutako bikoteak Zeberio II-Ion beteranoak gainditu zituzten finalean Tafallako Ereta pilotalekuan 21-35 emaitzarekin. Urdinek ia ez zuten aukerarik izan atzealdetik Otano nagusi eta Ma-

txin III.a oso erremate onarekin. Nahiz eta Matxin III.a-Otanok txapelketako partida bakarra galdu finaleko aurkarien aurka, ez zuten batere pisatu, gero eta hobeto jokatzen zutela erakutsi baitzuten. Urdinak jaun eta jabe izan ziren hasieratik eta ez zuten Zeberio eta Ion bezalako bi erremontista eskarmentudunen jokoa zabaltzen utzi.



## Euskara ikasteko dirulaguntzak

Joan den urrian egindako osoko bilkuran, Agoizko Udalak erabaki zuen euskara ikasteko eta euskararen normalizazioan lan egiten duten erakundeentzako 2022ko ekitaldirako dirulaguntzak emateko ebazpena onartzea. Deialdi honek sortutako gastuaren zati



bat finantzatu nahi du, eta ikasurte honetan 4.486,22 euro bideratu dira euskara ikasten duten pertsonentzat, eta 1.000 euro horien araudiarekin lotutako erakundeentzat. Aurten dirulaguntza jaso duen erakunde bakarra AEK izan da.